

TITIPUNTAK

Oraindik ere ez dakit nor izan den bizitzak zapuztu didana. Nire kontrako atentatu bortitza egin nahi izan balute bezala, nire bizitza ukatu, lurperatu eta debekatu. Gartzelak askatasuna suposatu behar izan bazuen ere, honek ez dauka zerikusirik nik irudikatu nuen mundu bitxiarekin. Hemen behintzat ez naute bortxatzen, ondo jaten dut eta lo egin dezaket hurrengo egunean esnatuko naizela jakinda. Baina Haitz eta Bikendi esnatuko dira edo berak hilko ditu? Ezin ditut babestu, ez dakit zelan tratatzen dituen Joxeluk. Beldur naiz egunen batetan gizarte lankide bat hona etorri eta polizia nire semeak hankak aurretik eramanda portaletik atera dituela esanez. Ez naiz hemendik luzaroan irtengo, eta ez zaio inori inporta. Eta zuri? Inporta zaizu?

Barrutik usteldua, kanpotik ergela. Inoiz ez dut indar nahikorik izan. Izanak izanda, atzera begiratu, oroitzapenek egunerokotasuna izango balute bezala. Munduko emakume, ume eta gizonak, ipuin bat:

-¿Sabía usted con certeza que si no hacía lo que su marido le pedía, podría matarla a usted o a sus hijos?- Arnasa hartu nuen. Ez zen berak zioen bezala.

-Matarnos no, pero amenazarnos...

-He dicho matar. Asesinar. ¿Sintió usted que si no realizaba aquel acto sexual, él podría, por ejemplo, estrangularla, o levantarse y tirar a sus hijos por la ventana, como dice usted que amenazó mi cliente?

Astuna zen gero. Erabat manipulatu zituen gauzak, eta izerdi baten hasi nintzen.

-No creo que me hubiera asesinado delante de los chavales, pero sí me hubiera violado.

-Sin embargo no lo hizo.-errepikatu zuen harro-harro, egun hartako gerraren irabazlea izan balitz bezala.

-Ese día no. Pero otros sí.

-Hablo del día en el que usted asegura que la forzó. Sin embargo, reconoce que al final no lo hizo, y que su marido se dio la vuelta y siguió durmiendo.

-No siguió durmiendo. Vino hacia mí y me juró por Dios que la próxima vez volvería a arrancármelos.-negarrez hasi nintzen. Burua jaitsi nuen eta Haitz eserita zegoen tokira begiratu nuen. Negarrez ari zen bera ere. Berak oso ondo ulertzen zuen dena.

-¿Cree que amenazarle con volver a arrancárselos es suficiente razón para hacer lo que hizo? Él no la atacó, y usted...

-iMe sentía denigrada como mujer!

-iUsais vuestro nombre de mujer para atacar a cualquier hombre!-esan zuen fiskalak, indarrez besoa eserita nengoen salatuen mahai gainean jarritz. Izerditan zegoen bera ere. Bere bafa sentitu nuen sudur gainean, eta aspaldi jaten ez banuen ere, botaka egiteko gogoia sentitu nuen.- ¿Te pegó alguna vez?

-No llegó a darme ninguna paliza pero...

-Responda con un sí o un no.-eskatu zidan, tinko.- ¿Le pegó su marido alguna vez?

-No.

Epaiaketa ikustera etorri zen jendea bere aulkietan mugitzen hasi zen. Batzuk baxuan hitz egiten zuten, baina beste batzuek, emakumeak gehienak, altu esan zuten zerbait fiskalaren kontra. Bat batean Joxelu eserita zegoen tokira begiratu nuen. Irribarre zabal bat zuen, une hartaz gozatzen egongo balitz bezala.

Leonor jaio zeneko egunean gertatu zela gogoratzen dut. Leonor I de España? Beno, agian bere jaiotza eta geroko egunetako berria entzutean izan zen. Florirekin nengoen etxean, telebista ikusten, bera haserre telebistak eskaintzen zituen albiste guztiengatik, ohe berdinean lo egiten ez zuten erregeen maitasuna aldarrikatuz, besteen bizitzak miserableak ziren bitartean. Bera bat batean agertzeko zain nengoen. Banekien ez zitzaizola gustatuko Flori etxean aurkitzea, baina gure ezkontzara etorri zen bakarra izan zen. Banekien nolabaiteko estima ziola. Ordua begiratu eta konturatu gabe dardarka hasi nintzen. Floriren begiradak sastako mina sortarazi zidan.

-Ni enoia ezer esatera.

-Ba ez eixu esan -erregutu nion.

-Halan da be ez jata ondo iruditzen.

-Neri bez.-bizitzako pisu guztia lepoaren gainean sentitu nuen.

-Eta zegaitxik onartzen dozu? Kalera irten gabe zigortzen zaitxun bigarren euna da! Benetan uste dozu horretarako eskubiderik dakala?

-Maite dot...-kristalezko hitz baldarrak ziruditen ahots batez, mundu errealean esatean. Aspaldian errepikatzen nizkion nire buruari, pairatzen nengoen guztia bere fruituak emango zituela, nik maite nuela eta berak ni ere

maite ninduela. Niretzat tontakeriak ziren baina berarentzat mundu oso bat osatzen zuten ekintzak saihestu behar nituen, eta gure sufrimenduak zeruaren ateak ikusiko zituen behingoz.

Atea zabaldu zuten kanpotik. Han zegoen nik hainbeste maite nuena.

-Gabon politxa!-erregutzat hartu zuen nire agurra.

-Ene! Gure Flori! Ez al dozu zure etxera bueltatzeko ordua ikusten?- nolabaiteko indar berezia egin zuen "zure" esaterakoan. Flori, minduta poltsa hartu eta bere ondotik pasa zen nazka aurpegiz.

-Ez dakit zelan onartzen dozun putaseme honek zeure semeen aita izaten jarraitzia.

Atea indarrez itxi zuen eta zazpigarren solairuko eskailerak jaisten entzun nion. Erabat uzkurtuta geratu zitzaidan bihotza. Baina gizon hark begiratzen nuen eta lasaitasuna eskaintzen zizkidan begi urdin horien aurrean nire bizitza ere eskainiko niola zin egin nuen behin. Egun hartako promesa sinesten jarraitu nahi nuen.

Gelara joan zen, eta une batez uste izan nuen gau hartan ez zela erretolikarik egongo. Barkatuko zidala emakume jaio izana, edo auskalo zer egin izan nion egun hartan. Baina desiorik egonkorrena apurtzean geratzen den desilusio garratza bezala, bere hitzek bihotzean zehar gau horretan zoriontsu izateko aukera bakarra lapurtu zidaten.

-Mila!!!-oihukatu zuen. Ohe gainean imajinatzen nuen. Ergela.-Eidazu mamada bat. Azkar!

Ni ere konturatu nintzen bere ar hotsa gehiegikeri hutsez betea zegoela. Ez nengoen prest onartzeko, eta egongelan geratu nintzen, zutik, Florik danbada batez itxitako ateari begira. Izututa nengoen. Oraindik ere ez dut ulertzen zelan gizaki batek horrenbesteko beldur eta nazka sor dezaken beste batengan.

-Mila...etor zaitez neska! Ondo pasatuko dugu! Gero klikatuko dizut nik sagua...

Goragalea sentitu nuen berriz ere. Beti eskatzen zidan *mamada* bat egiteko, edo masturbatzeko. Oihu kiratsak botatzen zituen, baina ez ziruditen plazer oihuak, baizik eta harrokeri hutsa helarazten zuten hots pufadak. Semeak

entzungo ziotela esaten nion maiz, baina gustatzen zitzaion, gehiago xaxatzen zuen horrek. Gero, berak ni ukitzen ninduenean, inolako konturik gabe, berdina egin behar nuen, eta batzuetan, nahiz eta benetako plazerra sentitzera ailegatu, ez nintzen oihukatzerantz ausartzen, Bikendik gure gela ondoan lo egiten zuelako. Baina berak ez zuen onartzen. Batzuetan eskuak indarrez eutsi eta pizkailu bat pizten zuen, nire alura hurbiltzen zuen eta klitoria erretzearekin mehatxatzen zidan altuago oihukatzen ez banuen. Behin, pizkailuaren gar batek ile batzuk harrapatu zizkidan eta segituan txikitu zituen, usain desatsegin bat utziz. Ez zidan minik eman, baina beldurtu nintzen, eta nire hanken mugimenduarekin, garrak aluen ezpainak harrapatu zituen, eta erre egin nintzen. "Natusan" pixkat bota nuen gainean. Handik bi egunetara, guztiz ondo ibiltzeko gai izan nintzen.

Horrelakoak ziren gure sexu harremanak. Ez da erreza ulertzea nola emakume batek ederretsia sentitu dezakeen horrelako sentipen gutxiko senar bat izanda, baina ez sinestuta ere, azkenean, ohitzeko gai izaten gara, defentsa mekanismo bat bada ere, bestela, gizakiak, ezinezkoa izango zukeen horrenbesteko sufrimendua pairatzea zoratu gabe.

-Hori da, ongi dastatu...-esan zuen, altu, semeek aditzeko moduan.-
Segi...

Ez nuke jakingo guztietatik, emakumeen degradaziorik zikinena zein den esaten: han, belauniko, maite ez den senar baten zakil tentea xurgatzea, ipurdian sastada biziak jasotzen diren bitartean, edo hori dela eta, semeek maite ez duten aita baten plazer oihuak aditzea, amak zelan demontre onartzen duen behin eta berriro galdetuz. Bere amatzok egoera hori zelan onartu dezakeen galdetuz.

Ez nuen gehiegi ulertu zer gertatu zen une horretan. Baina isurkari bero bat sentitu nuen ahoan. Atzera bota nahi nuen burua baina berak gogor eusten zidan burua zakilaren aurka.

-Txiza egin dozu, zikina!- lortu nuen esatea ito baino lehen nire eskuekin atzera egin ahal izan nuenean.

-Ixo eta jarraitxu mesedez...-bera.

-Txiza ein dostazu ahoan ta ez jata bat ere gustau!-esan nion ahul, arriskuaren aurrean biluzik dagoen batek bakarrik ahoskatu dezakeen lotsaz.

-Ez dozu edango? Labetxotik zuretako atera berria!- erantzun zidan aho batez, lurrera bota ninduen barre algara batekin.

Dutxa bat hartu nuen negar egiteko denborarik gabe. Haitz eta Bikendi lotan zeunden eta ez nekien Joxeluk nire ez egonarekin etekinik aterako zuen semeak esnatu eta bere ama zein puta eta hotza zen kontatuz, jatorduetan egin ohi zuen bezala, "txantxetan" , hori bai. Dutxatik atera eta Bikendiren gelara joan nintzen lo apur bat egitera. Bere bihotza ikustera ere ailegatuko nintzela sentitu nuen, nire bularren kontra, azkar, edozein momentutan bere lekutik ateratzeko adineko abiadurarekin. Indar nahiko izan nituen malkoak begi barruan gorde eta bere eskua hartzeko, hatzen imintzio adigarriekin *amatxu* ondo zegoela aditzera eman nahian, amaitu zela beldurraren une desatsegina eta babesaren ordua heldu zela. Baina negarra aditu nion isilean, izugarritzko sufrimendua pairatzen ari diren ama eta seme batek uler dezaketen leuntasunarekin. Berak ere bazekien ez zela azken aldia izango.

-¿Qué sucedió aquella tarde del 8 de marzo de 1987, cuando usted llegó a casa después de haber dado a luz a su primer hijo?-nire abokatuaren txanda ailegatu zen. Ane Miren Zubiarre, emakume komunista, Ezker Batuko kidea Eibarko zerrendetan, baina Ermutarra. Euskaldun petoa. Euskal epaiketa bat eskatu nuen, euskaraz hezi bainintzen eta niretzat zailagoa zelako gaztelaniaz zuzen hitz egitea, baina ez zidaten aukerarik txikiena ere eman.

-Llegué a casa y me puse a amamantar al niño.-erantzun nuen. Gogorra zen gero, aspaldiko kontu horiei aurre egitea berriz. Ane Mirenek irmo begiratu zidan. -Y cuando el niño chupaba mis pezones, él se puso como un loco, empezó a dar golpes al sillón pidiéndome que le diera un biberón, que no podía ver cómo aquél chupaba mis pezones.

-Indique las palabras exactas que usó su marido al referirse a su hijo recién nacido.

-Maldito hijo de puta.

-¿Dijo que aquel maldito hijo de puta estaba chupando los pezones de su mujer?

-¡Protesto!-aditu nuen bere atzetik.

-Se admite. Letrada, deje que la acusada responda por sí misma.

-Ongi da. Lasai Mila, lasai.-besoa gogor eutsi zidan, gordetzen zituen indar guztiak nigana bideratzeko esperantzarekin.-Zer gertatu zen gero?

-No pierdan el respeto a la sala.-oihukatu zuen epaileak. Ane Mirenek zakar begiratu zion.

-¿Qué pasó después?-errepikatu zuen.

Ezin nuen. Ez nuen indar nahikorik. Nire ama eta nire aita zeuden epaitegian, sekula ere "esan genizun!" esan ez zidatenak, Flori, eta Haitz. Eta han nengoen, malkoak goizegi begietan, Joxeluren aurpegi hotza niri begira, eta arnastu, ondo arnastu ezin nuela. Bizitzari aurre egin behar nion lehen aldiz. Haitzen begiak begiratu nituen. Ahoa zabaltzea lortu nuen:

-Me...Me quitó al niño. Decía que no le gustaba cómo me mamaba los pezones.-negarrez hasi nintzen. Urduri nengoen, lotsa sentitzen nuen, eta uste nuen Joxeluren aurpegian nolabaiteko damutasuna aurkituko nuela. Baina irribartsu jarraitzen zuen. Horrek indarrak eman zizkidan.- Me agarró por detrás y me llevó a la cocina. Estaba fuera de sí.-malkoak masailetik behera azkar abiatzen ziren, baina zutitzeko beharra izan nuen, mahai gainean eseri eta oihukatzeke nahia.- Estaba fuera de sí, completamente loco. Era irreconocible, jamás le había visto así. No era el hombre con el que me había casado.- begiko niniak bere begi hutsetan finkatu nituen berriz ere.-Y con un cuchillo me arracó la punta de los pezones. Aquel día llegué a conocerle.

Nire amaren oihu siku bat entzun nuen orduan. Jendetzaren artean ere nolabaiteko iskanbila sortu zen, emakume batzuk Joxeluren kontra zerbait esan zuten. Fiskalak nire bularretan finkatu zituen begiak, eta ulertu nuen berak ere nazka sentitu zuela. Ziur naiz une hartan Estatu Batuetan bizi izan bagina, Haitzek eta nire aitak bere pistolak hartu eta hamaika tiroz Joxelu hil egin izan zutela.

Titipuntak ebakitzea lehenengo astakeria izan zen. Ospitalera joan nintzenean, odol-jario batez hiltzeko beldurrarekin, berak umea zeraman besoen artean, eta erditu osteko depresio baten eraginez burua galdu eta nik neuk moztu nituela baieztatu behar izan nuen. Inork ez zituen galderarik egin. Psikiatra batek ikusi ninduen. Handik bi hilabetetara, nire eguneroko bizitzarekin jarraitzeko gai nintzela zioten bi paper sinatu zituen. Ergela bera eta ergela ni. Ezinezkoa iruditzen zitzaidan nire semeak aita gabe lagatzea. Bidegabekeri bat. Pairatu eta isildu.

Nahiko lotsatia izan naiz beti edonoren aurrean biluzteko. Baina Joxelurekin egin nuen lehenengo aldiz, erraza izan zen. Kartzelan jendeak ez zituen txiza eta kaka beste guztien aurrean egiten, emakumeen kartzelan behintzat. Errespetu handia ziguten lehenengo hemisferioan geunden emakumeoi, babes gehien zutenei, eta normalean, erru gutxi. Haitzek 20 urte bete zituen egunean, lan egiten nuen unibertsitateko dekanoa eta emaztea afaltzera etortzekoak ziren etxera. Arratsalde osoa pasatu nuen beraientzat afaria prestatzen, zizka-mizkak hasteko eta oilasko barru betea patatekin. Bikendik tarta handi-handi bat egiten lagundu ninduen, izan ere, ni ez naiz oso sukaldari ona, baina berak badauka sukaldaritzarako nolabaiteko dohaina. Handia irten zitzaigun gero! Goxo-goxoa, erdian "Zorixonak Haitz!" jartzen zuen, eta txokolatezko kandelak eta guzti egin genituen.

Nola ez, Joxelu jeloskor zegoen arreta gehiago jarri nuelako Bikendi eta nire tartan, bere gorputzean baino. Igandetako arroparekin janzteko agindu nion bakarrik, eta mahaian geunden bitartean, errespetuz afaltzea dekanoren aurrean. Etxea garbitu nuen, lore berriak erosi mahai dotoretzeko, eta girogailu bat ere erosi nuen, edozein usain txar saihesteko asmoz. Etxetik alde egin nuen gaueko bederatziatan, gonbidatuak jasotzeko herriko plazan. Mahaiari azken orraztua emateko, zerbait ahaztu ote nuen beldurrez. Eta hara non bederatzi eta erdietan dekanoa eta bere emaztea, Bikendi eta Haitzekin ailegatzen naizen pisura, azken honentzat erosi nuen opari handiarekin, tarta ikustea hartuko zuen sorpresa bikaina ikusteko desioaz, eta etxea hankaz gora topatu nuen. Gauzak bere tokietatik kanpo, txiza eta zigarroekin nahasten zen usain kiratsa, loreen lurra jan behar genuen mahaiaren gainetik botata, loreak beraiek ere besaulkiaren gainean, eta hauen ondoan, Joxelu, barruko arropa zuriarekin, zigarro bat piztuta eta Vodka botila huts bat ondoan. Berak ez zuen edaten. Hots gabe geratu nintzen. Zorabiatzeko zorian nengoen, eta Haitzek hartu ninduen, baina oparia, arrainez betetako akuario bat, lurrera erori eta hamaika zatitan apurtu zen.

-Gonbidatuak datozenian etxia pixkat txukundu bihar dala esaten dotsat Milari, baina berari bost axola.-esan zuen besaulkitik mugitu gabe.

Oraindik gogoratzen dut zelan lurrean, arrain kuttunek isatsa mugitzen zuten.

Handik bi ordutara, komunean eserita nengoen, medikua etxera etorri zen nire zorabioa kontrolatzera, baina segituan egin zuen alde. Bakarrik geratu nintzen Haitz eta Bikendirekin.

Askatasun une bat topatu nuenean komunera joan nintzen. Sekulako ezinegonan nuen tripan, pairatutako urduritasunarengatik agian. Eseri eta ordu erdiko beherakoa sufritu nuen. Badakit gauza hauek ez direla oso atseginak, baina arnas hartzea bezain naturalak dira, eta etxe hartako azkeneko bizipen desatsegina osatu zuen. Bat batean, ni komunean nengoela, Joxelu aditu nuen sarrerako atean, eta honekin batera, beste bi edo hiru gizonen hotsak ere. Etxean sartu zirela sumatu nuen. Altu hitz egiten zuten, eta Haitz eta Bikendi lotan zeudela oroitu nuen izututa. Ez nuen espero. Ezin nuen sekula imajinatu Joxeluren gorroto eta gaiztotasuna hain urrun heldu zitezkeenik. Garbitzeko papera hartua nuen eskuetan. Beheranzkoa moztu zitzaidan, sustoagatik agian, eta sabela hobeto nuen. Garbitzera nioan, ero hark komuneko atea zabaldu, eta bere hiru lagunak aurrean laga ninduen, erdi biluzturik, komunean eserita, pirrileraren usain zelatariak agerian laga ninduelarik. Negar egiteko gogoa sartu zitzaidan lotsaren lotsaz. Ahal izan nuen bezala, beheko partea tapatu nuen eta zisternatik tira egin nuen.

-iPasen y vean!-esan zuen harro-harro kanpai jole hark- Nire emazte kuttunaren aztarnarik barru-barrukoenak zuen agerian!

-Itxi atea kabroi halakoa!-Oihukatu nuen lotsaren lotsaz komunetik altxatu ezin nintzelarik. Bere hiru lagun lotsagabeen barre algarak besterik ez nuen aditzen. Egoera horrekin erabat gozatzen zuten, baina ez zen hori izan min gehien eman zidana.

-Ez al duzu ipurdi handi hori guretzat garbituko?-deiadarka jarraitu zuen Joxeluk.

Ahal izan nuen bezala altxatu eta zaplazteko bat jo nion. Korriketan alde egin nuen Haitzen gelara.

Isilune bat eta gero, berriz entzun nuen Joxelu bakarrik. Lagunak alde egin izan zutelakoan nengoen. Baina Haitzen gelaren atearen kontra kolpeka hasi zitzaidan.

-Etor zaitxe honea, nik garbitxuko dotsut kakaz beteta laga dozun ipurdi handi hori.

Benetako beldurra sentitu nuen. Nire bizitzaren kontrako atentatu bortitza egingo zutelakoan nengoen. Azkenean atea zabaltzea lortu zuen, eta Haitzek hogei urteko mutil baten indarrarekin bere kontra oratzen baninduen ere,

Joxeluk bere besoen artean hartu ninduen. Haitzeri gelan geratzeko esan nion. Joxeluk besoetan zeraman 45 urteko emakume galdu horren gorputza, indarrez borrokatzen zuena beso eta esku tinko horien kontra. Bikendi ikusi nuen bere gelatik irteten eta denbora nahiko eman zidan bere gelan sartu eta geldi geratzeko esatera. Oihu ikaragarri handiak bota nituen. Gure gelan sartu ninduen, buruz behera, eta lehenengo aldiz, hilko ninduela uste izan nuen. Ez ninduen jo, egia esan ez zidan sekula ere esku bat gainean jarri, baina zin degiot Jainkoari egun hartan akabatuko ninduela uste izan nuela.

Ez niola sekula berriz zaplaztekorik emango errepikatzera derrigortu ninduen. Egin nuen. Ez niola berriz lagunen aurrean lotsatuta utziko. Errepikatu nuen. "Ongi da " esan zuen. Altxatu nintzen, eta besotik leunki oratuta, komunera eraman ninduen.

-Orain garbitu ipurdia nire aurrean.-esan zidan.

-Nola?-malkoak berriz begietara heltzeko zorian zeuden.

-Garbitxu! Ikusi nahi dot. Ez dozu pentsauko ipurdia garbitu gabe bortxatuko zaitudala orain. Garbitzeko esan dinat!

-Laga bakean! Ez dozu inor bortxatuko!

Atzamarrekin atea heldu nuen une batez eta sukaldera abiatu nintzen. Komunetik nahiko gertu dago, hortaz, salbu sentitu nuen nire burua.

-Horrela berba eitxen badostazu berriz mingain zikin hori moztukotzut, eta titipuntekin batera gordeko dogu, zer diñozu?

-Alde hemendik -oihukatu nuen.

-Ez ba dostazu kasurik eitxen, zin dagizut laztana, zure seme maiteak leihotik behera botako ditudala oraintxe bertan. Etorri gelara!

-Ez!-atzera begiratu nuen. Sukaldeko hormarekin egingo nuen topo. Nire semeak leihotik botako zituela esan zuen, berarekin ohera joaten ez banintzen. Ez zituen sekula semeak mehatxatu. Baina ziur naiz bere hitza beteko zuela. Bere onetik kanpo zegoen. Haitz jaio zeneko egoera etorri zitzaidan burura. Ez nuen onartuko. Ez nion lagako nire semeen kontrako ekintzarik burutzen. Nire bizitza akabatuko zuen, baina ez zituen gure semeak ukituko. Eta orduan ikusi nuen. 15 zentimetroko labana. Tripan sartu nion.

Gogor. Behin eta berriro. Sartu eta atera, behin eta berriz, labankada bakoitzarekin bizipen nazkagarri bat akabatuko banu bezala.

-Egunero bihotzean ematen dizkidazun labankadak mingarriagoak dira.-Esan nion azkeneko esaldia izan zelakoan nengoen. Handik bi minututara hiru Ertzaina agertu ziren sukaldean. Haitzek poliziari hots egin zion.

-Ama!-aditu nuen Haitz.

-Amatxu!-entzun nuen Bikendi, sukaldeko atean. Bere aita lurrean botata, odolez beteta ikusi zuten, baina nire izena oihukatu zuten, lasaitasun hasperen bat isuriz ni ondo nengoela ikustean. Kartzelako gutunak irakurri nituen arte, ama izena "entzun" nuen azkeneko aldia izan zen.

Eta horrela amaitzen da nire ipuina. Ez da amaiera zoriontsu bat, nik imajinatzen nituenekoak. Baina egia izan, titipuntak galdu nituenetik, ez dut amaiera ederragorik espero izan. Bederatzi urte gehiago pasatuko ditut hemen barruan, eta min gehien sortarazten didana, Joxelu hil ez izana da. Nire indar guztiekin labana gorputz ustel hartan sartu nion, baina batzuetan Jainkoaren Legeak horrelakoak dira, eta ifernuan erre behar direnak salbatzen ditu, askatasuna merezi dutenak hiltzen dituen bitartean. Suposatzen dut gaizki egin nuela. Aspaldi banatu behar izan nintzela, semeak nirekin hartu eta bizi berri bati hasiera emateko. Baina hainbeste deuseztatu zuen nire izaera, bera gabe aurrera jarraitzea ezinezkoa gertatuko zitzaidala ere sinestera heldu nintzela.

Haitz etorri da gaur. Ipuin hau emango diot. Epaiketan parte hartu zuten abokatu-fiskal eta epaileari oparitzeko eskatuko diot. Agian, seme alabak badituzte, gustura irakurtzeko ipuina izango dute hau. Hiruzpalau lerro idatzi dizkiet. Espero dudan gauza bakarra bere ileak latzaratzea da, ez baitago damutasunik bihotz eta sentimendu gabeko izakietan.

"Badakizue? Zuek denok lapurtutako askatasuna aurkituko dut egunen batetan. Isilpean pasatuko ditut geratzen zaizkidan bederatzi urte hauek. Baina jakin isiltzen banaiz, ez dela hitzik ez dudalako. Eta behin batek esan zuen bezala, hemendik irtetzean, *berari niri baino hamar eguzki izpi gehiago eskaini* izanagatik, ez naizela inola, inon, inoiz isilduko."

Eta zuei esan, pozik jarraitzeko bizitzan.

LEMA: GESALA